

DEBAKO GAZTELEKUKO LOGOTIPO LEHIAKETAKO OINARRIAK

2024

NORI ZUZENDUTA

- Deba-Itziarko herritar guztientzat.

BALDINTZA TEKNIKOAK

- Bakarka zein taldeka hartzeko aukera dago.
- Logotipoan irudia eta honako testua azaldu beharko da: “Debako Gaztelekua”
- Diseinuak jatorrizkoak izan beharko dira, hau da, ez dira kopiak onartuko. Beraz, egileek zin egiten dute diseinua beraiena dela, edozeinen egile eskubideak bermatuz.
- Gehienez hiru kolore erabiltzea gomendagarria da.
- Teknika librea.
- Konnotazio sexista, arrazista, homofobo edota edonor mintzeko moduko logotipoak baztertu egingo dira.
- Irabazlearen logotipoaren jabea Udalarena izango da.

LANEN AURKEZPENA

- Epea: 2024ko uztailaren 26a, 23:59 ordu.
- Lanak ondorengo korreoan bidali beharko dira: debakogaztelekua2@gmail.com. Mezuaren gaia “Logotipo lehiaketa” izan beharko da. Mezuan partehartzen duen pertsonaren izen eta abizenak eta kontakturako telefono zenbaki bat zehaztuko dira.
 - Lanak hezitzaileei eskura emateko aukera ere egongo da.
- Gaztelekuko hezitzaileak lana epaileen aurrean anonimoa izateaz ziurtatuko dira
- Oinarrien onarpena: Lehiaketan parte hartzean, oinarriak onartzen dira, baita epaimahaiaren erabakia ere.

EPAIMAHAIA

- Epaimahaia: Debako Udaleko Gazteria Teknikaria eta Zinegotziak osatuko dute.
- Epaimahaiak saria eman gabe utz dezake, baldin eta kontsideratzen badu ez dagoela proposamen egokirik.

SARIA

- Irabazleari ondorengo saria emango zaio: DEBALAI elkartearen dendetan gastatzeko 100€tako bonoa.
- Irabazlearen izena publikoki ezagutuko da Debako Udaleko boletinean eta Gaztelekuko sare sozialetan.



DEBAKO UDALA